



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

22. Ordenantza fiskala Udalaren titulartasuneko bideen aprobetxamenduagatiko tasa

I. XEDAPEN OROKORRA

1. ARTIKULUA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Udalaren Titulartasuneko Bideen Aprobetxamenduaren ziozko tasa ezarri da. Tasa hori Ordenantza honek arautuko du, eta Ordenantzaren arauak bat datoz abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauan adierazitakoarekin.

II. ZERGA EGITATEA

2. ARTIKULUA

Zerga-egitateak Udalaren herri-bideen bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia da.

III. SUBJEKTU PASIBOA

3. ARTIKULUA

Subjektu pasiboak dira, zergadunak diren neurrian, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34. artikuluan ezarri diren pertsona fisikoak eta juridikoak eta erakundeak, baldin eta euren onuran udalaren herri-jabaria gozatzen, erabiltzen edo aprobetxatzen badute.

IV. ZERGA OINARRIA

4. ARTIKULUA

Ordenantza honen zerga-oinarria izango da garraiatuko den tona-kopurua edo pisuan duen baliokidea.

V. KUOTA

5. ARTIKULUA

Tasa horren kuota ondorengo aprobetxamendu moten arabera ezarriko da:

- Aprobetxamendu-mota:

1. Bideak egurrak garraiatzeko erabiltzea 0,60 €/ estereo edo Tm
2. Bideak beste material batzuk garraiatzeko erabiltzea 0,60 €/ estereo edo Tm

VI. AZKEN XEDAPENA

Udalaren Titulartasun edo Administrazioako Bideen Aprobetxamendu Bereziaren ziozko Tasa araupetu duen Zerga Ordenantza hau 2026ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, behin betiko onetsi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2025eko abenduaren 31ko 249. alean argitaratu eta gero, eta halaxe egongo da aldaraztea edo indargabetzea erabaki arte.